



**ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

# **A K T A**

## **Udalbatzarraren ohiko bilkura**

**EGUNA:** 2002ko abenduaren 27a

**LEKUA:** Kultur etxeko bilkura aretoa

**DEIALDIA:** Lehena **HASIERA-ORDUA:** 19:20 **AMAIERA-ORDUA:** 20:12

**BERTARATUAK:** **Alkatea**  
Mirari Arruabarrena Elizalde

**Zinegotziak**

Ramon Etxeberria Aldaz, Eneko Olariaga Arruti, Mari Jose Garate Etxeberria, Andoni Sarasua Oliden, Eneko Dorronsoro Portularrume, Daniel Barrenetxea Sarasua, Jose Miguel Leunda Zubizarreta eta Eugenio Cotado Iturain.

**Idazkari-Kontuhartzailea**

Jon Carrera Jauregi

**BERTARATU EZ DIRENAK:** Itziar Olariaga Larrañaga, herritik kanpo dagoelako.

### **Aztergai zerrenda**

- 1.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Orioko Udalaren 2003ko aurrekontu proiektuari.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udaleko 2003ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.
- 3.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Udalaren 2002ko aurrekontu propioaren kreditua aldatzeko espedienteari.
- 4.- Ahalmen zabala ematea alkateari 4.1.13 zonako —Anibarko Portua— 4. partzelan dagoen 28. zenbakidun garajearen salerosketako eskritura publikoa izenpetu dezan.



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

- 5.- Onartzea, egoki bada, Euskadiko RASD-ren lagunen elkartearen Gipuzkoako atalaren mozioa, Mendebaldeko Sahararen deskolonizazio prozesuaren atzerapenari buruz eta Saharako kanpamenduetako errefuxiatuen elikadura arazoei buruz.
- 6.- Eskariak eta galderak.

### **Esan-eginak**

#### **1.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN 2003KO AURREKONTU PROIEKTUARI.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, 2002ko abenduaren 23an egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2003ko aurrekontu propioari. Onartutako aurrekontuaren laburpena, kapituluka, hau da:

#### **DIRU-SARRERAK**

##### **Kapitulua Azalpena**

**e**

1. Zerga zuzenak .....	492.785
2. Zeharkako zergak.....	390.650
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak.....	990.900
4. Transferentzia korronteak.....	2.032.289
5. Ondarezko diru-sarrerak .....	159.590
6. Inbertsio errealeen enajenazioa.....	2.269.116
7. Kapital transferentziak .....	280.000
9. Finantza pasiboak .....	0
<b>2003ko diru-sarrerak guztira .....</b>	<b>6.615.330</b>



## ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

### GASTUAK

#### Kapitulua Azalpena

e

1.	Pertsonalaren ordainsariak .....	1.789.250
2.	Ondasun korronteak eta zerbitzuak .....	1.298.162
3.	Finantz gastuak-Interesak.....	136.215
4.	Transferentzia korronteak.....	570.755
6.	Inbertsio errealak.....	2.713.345
9.	Finantza pasiboen aldaketa (maileguen amortizazioa).....	107.603

**2003ko gastuak guztira.....6.615.330**

**2.- ONARTZEA** hurrengo bilkuran Udalaren 2003ko aurrekontu propioa exekutatzeko oinarriak.

**3.-** Udalaren 2003ko aurrekontu propioa **JENDAURREAN JARTZEA**, ondoko lege-arauetan ezarritakoa betez: Udal Erregimenari buruzko oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1/1985 Legearen 112.3 artikulua eta Tokiko Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/88 Legearen 150.1 artikulua. Espedientea ondoko arauen arabera jarriko da jendaurrean:

**Erakutsita dagoen lekua:** Kontuhartzailletza.

**Aztertze eta, hala badagokio, erreklamazioak jartzeko epea:** hamabost lanegunekoa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitara eman eta ondorengo lanegunetik kontaktzen hasita.

**Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak:** Tokiko Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/88 Legearen 151.1 artikuluan aipatutako interesatuek nahiz akordioaren aurka botoa eman zuten udalbatzakideek.

**Inpugnatzeko arrazoiak:** Tokiko Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/88 Legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoaren infrakzioa.

**Erreklamazioak aurkezteko:** udaletxeko sarrera-erregistroan.

Erreklamazioa Udalbatzarrari zuzenduko zaio.

Adierazitako informazio-epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, Udalaren 2003ko aurrekontu propio hori behin betirako onartuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

Eneko Dorronsorok hartzen du hitza eta, Batasunaren izenean, adierazten du aurrekontuetan partidaren bat jarri beharko litzatekeela 0-3 bitarteko haur hezkuntza bideratzeko.

Alkateak erantzuten dio, beharra sortzen baldin bada, hori kontuan hartuko dela Kreditua Aldatzeko Espedienteren bat egiten denean.

### **2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALEKO 2003KO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, 2003ko abenduaren 23an egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

**1.- ONARTZEA** Orioko Udaleko 2003ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.

**2.- ARGITARATZEA** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Orioko Udaleko 2003ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda, Erregimen Lokaleko arloan indarrean dauden legezko xedapenak onartzen dituen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 127 artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 16. artikuluan xedatutakoa betez.

### **3.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2002KO AURREKONTU PROPIOAREN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2002ko abenduaren 23an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2002ko aurrekontu propioari dagokion 1/2002 zenbakidun Kreditua Aldatzeko Espedienteari.

**2.- Espediente hori JENDAURREAN JARTZEA**, ondoko lege-arauetan ezarritakoa betez: Toki Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

158. artikulua eta 150. artikulua. Espedientea ondoko arauen arabera jarriko da jendaurrean:

**Erakutsita dagoen lekua:** Kontuhartzaitletza.

**Aztertze eta, hala badagokio, erreklamazioak jartzeko epea:** hamabost lanegunekoa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitara eman eta ondorengo lanegunetik kontaktzen hasita.

**Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak:** Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikuluan aipatutako interesatuek nahiz akordioaren aurka bozkatu zuten udalbatzakideek.

**Inpugnatzeko arrazoiak:** Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoaren arau-haustea.

**Erreklamazioak aurkezteko:** udaletxeko erregistro nagusian, bulego orduetan.

Erreklamazioa Udalbatzarrari zuzenduko zaio.

Adierazitako informazio epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, Kreditua Aldatzeko Espediente hori behin betirako onartuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

### **4.- AHALMEN ZABALA EMATEA ALKATEARI 4.1.13 ZONAKO —ANIBARKO PORTUA— 4. PARTZELAN DAGOEN 28. ZENBAKIDUN GARAJEAREN SALEROSKETAKO ESKRITURA PUBLIKOA IZENPETU DEZAN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

**AHALMEN ZABALA EMATEA** alkateari 4.1.13 zonako —Anibarko Portua— 4. partzelan dagoen 28. zenbakidun garajearen salerosketako eskritura publikoa izenpetu dezan.

### **5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EUSKADIKO RASD-REN LAGUNEN ELKARTEAREN GIPUZKOAKO ATALAREN MOZIOA, MENDEBALDEKO SAHARAREN DESKOLONIZAZIO PROZESUAREN ATZERAPENARI BURUZ ETA SAHARAKO KANPAMENTUETAKO ERREFUXIATUEN ELIKADURA ARAZOEI BURUZ.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



## ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Mozioak, hitzez hitz, honela dio:

*Orioko Udalak, hurrengo urtarrilaren 31n Ekialdeko Sahararen deskolonizazio prozesuaren amaiera dela eta, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak egingo duen bilerari begira eta 1994ko, 1997ko, 1999ko eta 2001eko adierazpenak onartu zituen espiritu berberarekin honakoa adierazten du:*

*Saharako Herria, bere askatasunaren eta bere herrirako eta Magrebeko eskualde osorako bakearen bila egiten ari den bidezko borrokaren aldeko dela* **ERREPIKATZEA**.

*Nazioarteko eskubidearekin eta UNOko erabakiekin nahiz nazioarteko erakunde ezberdinenekin bat etorritik, presio militar, administratibo edo politikotik at dagoen autodeterminazio-erreferendum baten bidez Saharako Herriak bere etorkizuna libreki erabakitzeko duen eskubidea* **BAIEZTATZEA**. Egoera ikusita, Nazio Batuen Bake Plana eta 1997. urteko Houstongo akordioak, eskubide hau aurrera eramateko formularik eraginkorrena dira oraindik ere eta gatazkako bi alderdien oniritzia eta Nazioarteko Komunitatearen aho bateko onarpena izan duen bakarra da gainera.

*Nazio Batuei eta batik bat bertako Idazkari Nagusi den Kofi Annan jaunari eta Ekialdeko Sahararako Mandatari den James Baker jaunari, dagozkien ardurak harturik, Saharako Herriak autodeterminaziorako duen eskubidea gauza dezan premiazko neurriak har ditzaten* **ESKATZEA**, Bake-prozesuaren blokeo-egoera gaindi dadin eta egoera honek milaka saharar errugaberengan sortzen duen sufrimenduak amaiera izan dezan.

*Europako Batasuneko erakundeek Bake Planaren garapenean inplikazio handiagoa izan dezaten* **ESKATZEA**, nazioarteko esparruan dagokien egitekoa beraien gain hartuz eta Marokori nazioarteko legeria errespeta dezan eta Ekialdeko Saharan bidegabe okupaturik dituen lurraldeetan giza eskubideak errespeta ditzan exijituz hartu-emanak dituztenean.

*Marokoko Erreinuak orain dela 27 urtez geroztik Ekialdeko Saharako lurraldean militarki egina duen okupazio ilegala* **SALATZEA**, baita pertsona-mailako eskubideen nahiz eskubide kolektiboen urraketa sistematikoa ere okupaturiko lurraldeetan. Saharar izate hutsagatik sistematikoki jarraituak izatea, atxiloketa arbitrarioak, desagertze behartuak, torturak eta tratu txarrak, erakunde independenteek behin eta berriz salatu izan dituzten gaiak dira, baina orain artean ez da emaitza esanguratsurik lortu.

*Marokori Saharako preso politiko guztiak aska ditzan eta nazioarteko erakundeek aitorturik dituzten 500 desagertu baino gehiago non diren argi dezan* **EXIGITZEA**, baita ikerketa-batzordeek, erakundeek, pertsonak eta prentsa independenteek lurraldean sartzeko baimena izan dezaten exijitzea ere, errealitatearen lekukotza emateko aukera izan dezaten eta jarraituriko pertsonak laguntza eman diezaieten.



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

*Espainiako Gobernuak nazioarteko foroetan, Saharako Herriaren eskualdean bakea mantentzea bermatuko duen irtenbide politiko onargarria bilatzeko jarrera manten dezan **ANIMATZEA**, halaber, deskolonizazio prozesuan izan dituen ardura historikoen aitormena oinarri hartuz, UNOren eta EBren esparruan egiteko aktiboagoa har dezan presatu nahi dugu, Afrikan azken deskolonizazio prozesu hau amaitu dadin lortzeko.*

*UNOri, Europako gobernu ezberdinei eta bereziki, Espainiako gobernuari eta eskualdeetako gobernuari, Saharako herri errefuxiatua jasaten ari den elikagaien krisia arintzeko fondo bereziak aska ditzaten **ESKATZEA** lehenbailehen (hornikuntza ziurtatzeko abian diren lankidetzak bitartekoez gain), gai honen inguruan urtez urte lanean diharduten kooperazio-erakundeei laguntza emanez.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

- 1.- **BERTAN BEHERA UZTEA** Udalbatzarrak 2002ko abenduaren 4an hartutako gai honi buruzko erabakiak.
- 2.- **ONARTZEA** Euskadiko RASD-ren lagunen elkartearen Gipuzkoako atalaren mozioa, Mendebaldeko Sahararen deskolonizazio prozesuaren atzerapenari buruz eta Saharako kanpamentuetako errefuxiatuen elikadura arazoei buruz, goian jasota dagoen bezala.

### **6.- ESKARIAK ETA GALDERAK.**

Ez ziren izan.

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA**

**IDAZKARIA,**